

# Bide erratuak

Antton Izagirre

Urtero haurren matrikularako epealdia zabaltzen denean, gurasoen arreta erakartzeko eskola-ikastolek egiten dituzten marketin kanpainak ikustera ohituak gaude. Bakoitzak bere indarguneak, baliokak, helburuak eta proiektuak agerian jartzea normaltasunaren barruan ikus genezake.

Hala ere, aurtengoan, duela hilabete gutxi, eragile batzuek ikastolak sare publikoan integratu beharra aldarrikatuz egindako proposamena harriiduraz hartu dugu eta eztabaida eragin du sare sozial eta komunikabide zenbaite-tan.

Horrek ere izango du zerikusia aurrez aipatu dugun marketin kanpainarekin, baina mahaigaineratu dituzten nahiak, asmoak, proposamenak eta eskaerek sakoneko karga zuten; izan ere, egungo Euskal Eskola Publikoaren sarea eredu-tzat hartu eta ikastolak integratzea ir-tenbide zuzen eta ezinbestekotzat jo-tzen baitzuten proposatzaileek.

Une batez, orain ia hogeita zortzi urte izan zen ikastolen publikazio-integra-zio prozesuan izan genituen eztabaida eta gatazkak ekarri dizkit gogora; hala ere, oraingoan, orduko edonolako tes-tuinguruetatik kanpo. «Burua lehengo lepotik», esango luke batek. Edo oso gu-

txi ikasi dugu iraganetik edo asmo txar-rez egina izan da, edo bederen, bide erratua izan dela aitortu beharko genu-ke. Ez baita egokia eta txukuna besteek, ikastolek, zer bide egin nahi duten gal-detu ez, eta haiei, ikastolei, borondatea-ren kontra, eginarazi beharko litzaieke-en bidea proposatzen jardutea.

Eztabaida beharrezkoa izanik ere, Eus-kal Eskola Sistemaren berezitasun osoa eta bakarra, orduan bezala orain ere, pri-batu-publiko bikotasun hutsean oinarri-tzeak ekarpen eskasa egiten dio Euskal Herriak behar duen Hezkuntza Sistema Propioari eta borondateak elkartu beha-rrean banatzen dituelakoan gaude. •

# Postalak nire kontu

Miren Azkarate  
Badiola

Badira urte batzuk gaixorik zau-dela, hau ez da berria. Jubilatu berri parkinsona diagnostikatu zizuten eta ondoren minbizia. Kolpe gogorrak, batez ere jakinda buruan zenituen ametsak eta bidaiak egiteko au-kerak murriztuko zitzaizkizula. Murriztu bakarrik diot, batzuk egin izan dituzula-ko, besteak beste hain gustuko duzun Do-nejakue bidearen zati batzuk.

Ez dut esan nahi momentu txarrik ez zenuenik biziko, baina inoiz ez duzu umorea galdu, zure identitatearen era-kusleiho handiena. Nik txikitatik oroi-tzen zaitut txisteak kontatzen, jendea

imitatuz (tartean zure aita zena, nire aito-na), abesten. Zu izan zara beti ongi ez egon arren parekoa animatzen ibili dena eta azken egun hauetan ere ez da salbues-pena izan, jakin badakit zure anaiarekin bideokonferentzia bat egin duzula eta tratamendu gehiago hartuko ez duzula esan diozunean, honek suposatzen duen guztiarekin, zu izan zarela bera animatu duena negarrez hasi denean.

Familiarteko bazkarietan zu izan zara beti perrexila, banekien non zinen eserita ingurukoen barre algarak entzuten nitue-lako. Zenbat barre egiten dugun zurekin, inorekin ez bezala!

Baina niretzat ez zara hori bakarrik, behar dudan guztietan nire ondoan den osaba zara, latina erakutsi zidana eta on-gi erakutsi ere, 5 bat atera nuen azterke-tan! Kar, kar... Eta zu izan zara nire espe-txealdiko urte guztietan astero-astero hutsik egin gabe postal bat bidali didan pertsona bakarra. Nola ez zara ba bere-zia izango niretzat? Nola ez zaitut ba hainbeste maiteko (nahiz eta ez dizudan inoiz esan)?

Hau da nire gaurko postaltxoa, he-mendik aurrera nire kontu txisteak eta bidaiak kontatzea. Muxu handi bat eta laster arte, Iñaki. •